

Atentatua Madrilén

Zazpi hildako Madrilén Armadako furgoi baten kontrako atentatuan

Sei militar eta beren gidaria dira hilak eta 25 lagun zaurituak


Sei militar eta beren furgoiak gidatzen zuen zibila hil ziren atzo eta hogeita bost pertsona zauritu Madriléko erdigunean bi bonba-auto eztandarazi zituztenean. Lehenengoak bete-betean hartu zuen Estatuko Batzorde Nagusiko egoitzara zihoan furgoi militarra. Atentatugileek erabili zuten autoa handik ordubetera lehertu zuten.

MADRIL

Espainiako Armadako lau teniente koronel, fragata kapitain bat, sarjentu bat eta gidari lana egiten zuen zibila dira atentatuan hildakoak. Guztiak Nissan-Vanette furgoi militarrean zihoazen, baina ez zeraman Armadako inolako zeinurik eta matrikula ere plaka zibil batez zuen aldatua.

Goizeko 8.15etan, furgoiak Madriléko Joaquín Costa kaletik pasatzean, lehergailuz betetako Opel Corsa auto bat urrunetik eztandarazi eta ibilgailu militarra bete-betean hartu zuen.

Bonba-autoa gaizki utzia zegoen, aipatu Joaquín Costa kalean dagoen zubia altxagarriaren azpian. Furgoi militarrek abiada gutxitu behar izan zuen ondorengatik pasatzean eta eztandak ibilgailua erabat suntsitu zuen su hartu ondoren. Horren ondorioz eta gorpuk kiskaliak zeudenez, zaila izan zen atzo goizean hildako ko-



Furgoiak zihoazen zazpi pertsonak hil ziren atentatuan.

EFE

purua eta beren nortasuna baieztatu.

Arratsaldean ezagutu ziren zazpi hildakoen izenak: Lur Armadako Fidel Davila Garijo eta Javier Baro Diaz de Figueroa teniente koronela, Aire Armadako Juan Romero Alvarez eta Jose Carretero Sogel, Domingo Olivo Esparza fragata kapitaina, Armadako Juan Manuel Calvo Alonso sarjentua eta Pedro Robles gidaria.

INDAR HANDIKO LEHERKETA

Hiru armadetako militarrek Estatuko Batzorde Nagusiaren (EMACON) egoitzara zihoazen atentatua izan zenean, Defentsa Ministerioak ezagutzera eman zuenez. Armadaren koartel nagusian jarri dute zazpi hildakoen hil-kapera eta gaur goizean egingo da hileta. Berrogei kilo leherkari zituen autoak eta eztanda izugarria eragin zuen. Kalte handia sortu zuen

inguruko hiru etxebizitzetan eta ingurutik oinez edo beren autoetan pasatzen ari ziren 19 pertsona harrapatu zituen, batzuk oso larri zaurituz. Autobusaren zain zeuden zortzi eta 20 urte bitarteko hiru haur egoera larrian daude metrailak eragin zizkien zaurien ondorioz.

Leherketak nahasmen handia sortu zuen Madriléko erdigunean. Eztanda izugarriaren ondoren, sua, kea, oldoleztatutako jendea eta etengabeko anbulantzia hotsa etorri ziren. Poliziak inguruneak hartu zituen eta kalte-tutako hiru etxebizitzak hustu egin zituzten.

BIGARREN AUTOAREN EZTANDA

Bigarren leherketa ordubete geroago izan zen, 9.15 aldera. Serrano kalean gaizki utzia zegoen matrikula faltako Ford Fiesta autoak egin zuen eztanda, eta inguruan zebiltzan hiru pertsona zauritu zituen. Hasieran beste atentatu bat izan zitekeela pentsatu zen, baina hipotesi hori baztertu zuen gero Poliziak.

Egileek atentatuaren lekutik alde egiteko erabili zuten autoa zela aipatu zuten iturri polizialek, eta atentzioa desbideratzeko lehertu zutela. Lekukoek azaldu zuten berriz, ordu erdi lehenagotzi zuten bertan. Barne Ministerioak berak ez zela bigarren atentaturik izan azaldu zion Copenhagenen zen Felipe Gonzalez jarduneko presidenteari. «Auto tranpa zela dirudi gehiago» adierazi zuen atzo Felipe Gonzalez.

Poliziak ETaren 'Madril komandoari' egotzi dio atentatua

DONOSTIA

Poliziak ETaren 'Madril komandoari' egotzi zion Joaquín Costa kalean eginiko atentatua. Barne Ministerioak Javier Arizkuren, María Soledad Iparragirre eta Jesús García ETako ustezko militante liberatuei leporatu die atentatua. Dagoeneko karteletan dauden hiru pertsona hauek 1992an Madrilén gertatu ziren beste lau atentatuen erantzule egin ditu.

Poliziak esan zuen lehenengo biak abenduan identifikatu zituztela.

Barne Ministerioak bozeramaile batek azaldu zuen atentatuak ez daukala zerikusirik, itxuraz, Felipe Gonzalezek alderdi politiko nazionalistetako burukideekin gobernua osatzeko dituen bilerekin. Eledun berak esan zuen «ETAk ahal duen tokian eta unean» jarduten duela.

Euskal Herrian eginiko beste zenbait atentatuz gain, Poliziak otsailaren 6an lau militar eta funtzionario zibil bat hil zituen leherketa egotzi die. Maiatzaren 24ean zazpi polizia zauritu zireneko atentatua ere talde honen ekintza izan bide zen. Ekainaren 9an bederatzi ofizial, soldadu bat eta hiru zibil zauritu ziren atentatuan.

Madrilen eginiko azken atentatua azaroaren 30ean izan zen. Egun horretan bonba-auto baten leherketaren ondorioz Goardia Zibilaren tenienteorde bat hil zen. Atzokoa aurten ETak Madrilén egin duen lehen atentatua izan da.

25 zauritu, lau oso egoera larrian

MADRIL

■ Bi leherketetan zauritutako 25 pertsonetatik lau oso larri daude —horietako bi hil-zorian—, bost larri eta beste hamar zaurituk alta jaso zuten atzo bertan.

Juana Cañizo zortzi urteko neskatokaren eta María Antonia Mezquita 20 urteko gaztearen diagnostikoa oso larria da eta biak hiltzeko arriskuan daude, Princesa ospitaleko Clerigue medikoak aditzera eman zuenez. Juana Cañizok bi hanketan eta hestean ditu zauri larrienak, gorpuz osoan metraila sartuta badu ere. María Antonia Mezquitari bi ebakuntza egin behar izan zitioten bularrak berrosatzeko.

Honek ere metraila du gorpuztean.

María Gabriela Cañizo —Juana Cañizoren ahizpa— Gregorio Marañón ospitalean ingresatu zuten oso egoera larrian. 15 urteko gazte hau hil-zorian egon zitekeela uste bazen ere, bere bizia arriskutik kanpo dago, bere aitak azaldu zuenez. Dena den, begi bat galdu du, bi hankak hautsita ditu, eta metrailaren eraginez erredura eta zauri ugari ditu gorputzean.

Mari Gabriela eta Juana Cañizo eskolara joateko autobus geltokian zeuden atentatua gertatu zenean. Beraiekin zegoen Luis Gabarda Duran 8 urteko haurrak eskuetan eta hestean ditu

zauriak, eta bere pronostikoa larria da.

Oso larri dagoen laugarren pertsona Carmen Redondo 28 urtekoa da. Gregorio Marañón ospitalean ingresaturik dagoen emakume honek ezkerreko hankan ditu zauri larrienak. Traumatologiako buruak esan zuenez, zauriaren bilakaerak okerrera joz gero, hanka gal lezake. Redondo bigarren eztandan zauritu zen.

Pronostiko larrian daude Miguel Alvero Suarez 26 urteko gaztea, Matilde Cuellar García 49 urtekoa, Fernando Flores eta Juan Carlos Sobrino Ruiz. Alvero Suarez ezik, gainontzekoak furgoi militarren kontrako leherketan zauritu ziren.



Zaurituetako bat, lurrian, odolatan.

EFE